

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRÓNGO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lehiaketa publikoa, "Barrón" izeneko ehiza barrutiko ehiza aprobetxamenduarena

Lehiaketa publikoa, "Barrón" izeneko ehiza barrutiko ehiza aprobetxamenduarena, zeina Barróngo Administrazio Batzarraren lurrek osatzen baitute eta titularra, jabe taldearen ordezkari, administrazio batzar hori baita, administrazio batzar horretan interesdunen eskura dauden baldintzen arabera.

Lizitazio oinarria lau mila eta bostehun euro (4.500,00 €) da urtean, BEZa barne; gehiago eskainiz hobetu ahal izango da. Gainera, tokiko ehiztariek ehiza barrutian parte hartzeko baldintzak baloratuko dira.

Behin betiko bermea adjudikazio prezioaren ehuneko bost (% 5) izango da.

Ehiza barrutiaren ehiza aprobetxamendurako errentamendu aldia hamar (10) urtekoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko epea zortzi (8) egun naturalekoa izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera zenbatuta. Dokumentazioa kontsultatzeko eta eskaintzak aurkezteko, aldeztu aurretik administrazio batzarrarekin harremanetan jarri behar da, 608 318935 telefono zenbakira deituta.

"Barrón" izeneko ehiza barrutiaren aprobetxamendua adjudikatzeko, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak barrutia onetsi behar du aurretik, dagokion foru agindua sinatuta.

Barrón, 2026ko irailaren 1a

Lehendakaria

JUAN JOSÉ FERNÁNDEZ DE PALOMARES GONZÁLEZ